

4. ibilbidea Kadaguako ibilbidea Erdi Aroko oihartzunak

Orduan, gorri tindatuta jaitsi ziren Kadaguako ur argiak. Bandokideen guduek eskualdea suntsitu zuten; dorretxeek su hartzen zuten, eta herriak etxeetan hartzen zuen babes. Erdi Aroko oihartzunak gaur harri bihurtuta, handikeria indianoen jauregi bihurtu zen bezalaxe; itzulitako migratzaile aberastu eta nostalgiko horien jauregi bihurtu zen handikeria. Gaur, bizitzak baketsu egiten du aurrera, lapiko sutuen usain gozoen artean. Hormek eta almenek iragan heroiko baten soinua gordetzen dituzte gaur, eta, agian, baita batzarrean bildutako nobleen espirituak ere, ibaia zein kolorez jaitsiko den eztabaidatzen oraindik.



20

Kadagua ibaiaren ertzean monumentu historikoz jositako ibilbide honi ekiteko, BI-636tik aterako gara Bilbotik, eta BI-3651 errepidearekin egingo dugu bat, **Gueñeserako** noranzkoan. Urrutia etxeak hartuko gaitu. Gaur udaletxea den etxebizitza da hori, eta egun batean Indietara joan eta aberastuta itzuli zirenen lekuko mutua. Erljio-arkitekturan, Santa Maria eliza (XVI. mendea) nabarmen-tzen da, gotiko isabeldarraren eta errenazimenduaren erakusle handia baita.



Abellaneda

Naturaren eta artearen arteko bizikidetzat bitxiaz gozatzeko, **ARENATZarte** bisitatu dezakegu, Arenatza parkean (Gueñesen). Lorategi botanikoa da, non zuhaitz bereziak eta eskultura abangoardistak dauden.

Familian etortzen bazarete, bisitatu ezazue Bizkaia Park Abentura, oztopo-zirkuituak, puzgarriak eta rokodromoa dituen parkea. Indus-

tria-pabilioi erraldoi baten barruan dago, Arangoiti industrialdean. 700 pertsonarentzako lekua dauka.

Gueñesetik irtengo gara, etortzeko erabilitako errepide bera hartuz. Hala ere, BI-3602 errepide hartuko dugu gero, **Zallara** iristeko. Mugaldeko auziei eta antzinako burdinolei dago lotuta herri horretako historia. Ondare historiko baliotsua dauka; hala nola, Murgatarren jauregia dago bertan, XVII. mendekoa, egungo udaletxea dena, edo Terreros dorrea, bandoarteko gerraren garaiko defentsa-eraikuntzaren adibide ona.



ARENATZarte



Balmaseda

21

San Pedro Zariketeko ermita nabarmen-tzen da. Horren ondoan, Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zen. Aire zabalaz gozatzeko, **Bolumburu** aisialdi-gunea aurkituko duzue; bestela, Roblako trenbidearen antzinako trazaduran ibil zaitzete pasieran.

Ibilbide hau egitean, nahitaez bisitatu behar da **Abellaneda** herria. BI-3602a jarraituz, Zallatik aterako gara, eta BI-2701 errepide hartuko dugu aurrerago. Abellanedako Batzarretxean biltzen ziren eskualdeko kontzejuetako ordezkariak, eta hor hartzen zituzten gai orokorre buruzko erabakiak, XIV. mendetik XIX. mendera bitartean. Gaur, Enkarterrietako museoaren egoitza da Bizkaiko Jaurerrira atxikitzean herri

horiek gozaten zituzten pribilegioen eta askatasunen multzoaren sinbolo hori. Hurbildu zaitzete gure historia-ren zati hori ezagutzera.

Balmasedan amaituko dugu gure iraganeko oihartzunetara egindako bidaia. BI-2701tik itzuli ondoren, BI-630 errepide hartuko dugu, 15 minututan baino gutxiagoan iristeko herri horretara. Inguruan biztanle gehien dituen hirigunea da, eta edertasun handiko Alde Zahar historikoa dauka, non Zubi Zaharra, harrisiko lekuko zaharrena, den buru. Balmasedako Aste Santuan, 50.000 pertsonatik gora erakartzen dituen eta errealismoz beteta dagoen Pasio Biziduna birsortzen da. Txapela tradizionala ekoizten zuen antzinako fabrikak, egun La Encartada Fabrika

Museoa denak, industria-iraultzaren amaierara eramaten gaitu. Eraikinak bisitatu ditzakegu, eta balio handiko makina orijinalak ikusi. Bitxikeria gastronomikoak gustuko badituzte, putxeren iragana eta orainaldia ezagutu nahiko dituzte. San Severino egunean prestatzen dituzte putxerak, urriaren 23an. Lapikoko tradizionalki dira, babarrunetan eta sakramentu guztietan (txerri-saiheskia, xingarra, txorizoa, odolkia...) oinarritutakoak. Bilbao-La Robla lineako trenbideetako langileek egiten zituzten lehen, makinak ikatzaren beroarekin, putxera batean edo tren-lapiko batean. Sekulakoa da babarrun horiek bertako txakolinarekin laguntzea.

Balmasedatik Bilbora, 30 minutu bertik ez daude BI-636tik joanda.